

## **BILBAO TOPONYMOAZ ERITZI EMAITEA**

*Bilbao, 1989-garreneko urriaren 5-ean*

*Alfonso Irigoien  
Euskaltzaina*

Euskaltzaindiari eritzia eskatu zaio eta zuzena den *Bilbao* toponymoaren forma erabiltzea, hala ipintzea nahi bailukete, eta eskariaren egilea Bilbo Aurrezki Kutxa da, Pedro Hormaetxea Oar, Irudi eta Komunikaziorako Zuzendariak sinaturik. Honela dio: “Dakizuenez, Bilbaoko Udal Aurrezki-Kutxa eta Bizkaikoa, bat egiteko prozesu baten barruan gaude. Horretarako, eman diren lehen pausoetariko bat, sortuko den Kutxaren legezko izenaren finkatzea izan da, Bat Egite Batzordeak azkeanean onartu duena hauxe izanik: Bilbao Bizkaia Kutxa. Hau dela eta, atsegín osoz zuzentzen gatazkaizue, euskararen erakunde goren moduan, Bilbao izenari buruzko zuen erizpen edo jarrera eskatzeko, zuzena iruditzen zaizuen ala oztoporik ikusten diozuen horrela erabiltzeari”.

Onomastikako Batzordeak Iruñean joan den irailaren 25-ean eginiko batzarrean tratatu zuen eskabide hau, eta eritzi emaite bat egin nezan eskatu zitzaidan bertan. Hona hemen:

1. *Bilbao* da historiaren aldetik euskal formarik zaharrena eta erdaraz erabiltzerakoan oso osorik gorde dena, normalki euskaraz berba egiten denean, bereziki Bizkaian, *Bilbo* formara laburturik arrunt erabiltzen bada ere. Berdintsu gertatzen da Bizkai inguruko hizkeretan *ardao* hitzarekin, hainbatek *ardo* laburturik erabiltzen baitu *-ao* diphthongoaren monothongazioa dela kausa. Baina Bizkaian erabiltzen den *ardao* forma osoagoa da euskaraz, eta ene ustez hobetsi beharrekoa. Ene ikerketen arauera, gainera, *Bilbao* eta *Askao* toponimoek bikote bat osatzen dute, itxura guztien arauera elkarren parean eta oposizioan sortu baitziren, biek *-ao* dutela bigarren elementutzat, errekaaren ahoa alegia, *Lasao* < \**lats* + *ao*, *Ibatao* < \**ibat*- *ao*, *Iturrao* < \**iturr*[i] + *ao*, eta abar, formetan gertatzen den bezala bezalaxe. Eta halakoetan gure artean forma zaharri eusten zaio, eta beti emaiten da *Askao*, *Lasao*, eta abar, eta ez \**Asko*, \**Laso*, eta abar, administrazioeko dokumentazioan hala iraun baitute gure denborararte, *Bilbao* formarekin gertatu den modu berberean.

2. Nafarroako euskal leku-izenen zerrenda, bai udalena eta bai auzoena, egin berri du Euskaltzaindiak bertako Gobernuaren eskabidez, euskaraz mintzatzerakoan toponymoak nola erabili finkatzen dela. Eta zenbait kasutan lehen emaniko forma laburtuak gaitzetsi gabe osoagoak hobestera jo da, nik neurorrek hala bultzatu bainuen, zeren memorio kulturala hobeto zaindu behar dugula uste baitut, eta maiz administrazioko dokumentazioaren eraginez forma zaharragoak eta euskaldunentzat garden direnak gorde baitira. Horretara *Olatzagutia* hobetsi da *Olazti*-ren lekuan, *Olatza tipia* erran nahi baitu, berdin *Otsagabia*, osorik, *Otsagi* laburtua forma arrunt moduan gaitzetsi gabe, eta abar.

3. Arrazoi berberetatik uste dut *Bilbao* forma hobetsi behar dela, eta *Bilbo* laburtua berbeta arrunterako utzi, batez ere deklinatu behar denean.

Eta hala jakinerazten dut behar den tokian jakin dadin.